

Sakanako Eskola Txikien talde identitatea biltzen duen dokumentuaren aurkezpena

Lakuntzan 2016ko apirilaren 28an

Sakanako Eskola Txikiak Olazti, Urdiain, Iturmendi, Arbizu eta Uharte-Arakilekoak dira. Aspaldi hasi zuten elkarrekin lana egiteko bidea eta geroz eta proiektu gehiago dituzte eskuartean. Aurten Dumas proiektuaz gain, Sakanako Eskola Txikien talde identitatea biltzen duen dokumentua sortzeko lanketa sakonean aritu dira.

Bost eskolen arteko oinarri amankomunak zehazteko lanketa bat egin nahi zutela ikusi zuten bost ikastetxeetan. Lan hori egiteko Juan Miguel Ruiz bidelagun ona izan zitekeela eta proposatu zuen Iturmendiko herri-eskolako zuzendari Amaia Zubiriak.

Juan Miguelekin elkartu eta zonaldeko zuzendariek helarazi zioten zein zen beraien nahia eta beharra. Honetaz gain zonaldearen errealitateaz, elkarbizitza hobetzeko aukerez eta eskolek zuten nahiaz luze hausnartu zuten bilera batzuetan zehar. Orduan Juan Miguel Ruizek lanketa bat egitea proposatu zien, Eskola Komunitate osoa barne hartuko zuen lanketa.

Iraganetik eta etorkizunerako bidaia bat egitea zen asmoa.

Eta horixe da eskola kuttun hauek egin dutena. Prozesuaren lehen saioetan aspaldiko ikasle eta familiekin egin zen lanketa bat. Bertan gure eskoletan aspaldi gertatu izan ziren pasadizo polit eta ez oso politikak atera zituzten azalera.

Amesgaiztoen aro honetatik, ikastolei errekonozimendua emateko saio bat antolatu zuten ondoren. Sakanako ikastolei saio batetara etortzera gonbidatu ondoren, beraien esker gure ikastetxeetan gaur euskaraz ikasten dela eskertuz. Beraien auzolanerako eta ezina ekinez egin daitekeela erakusteko izan duten indarragatik eskerrak eman zizkieten. Ikastoletan ikasiak direla adieraziz ikastetxe publikoetako lehenengo irakasle euskaldunak.

Ondoren hasi zuten ametsen fasea. Ikasleei, gurasoei, komunitateari... nolako eskolak amesten dituzten irudikatzeko eskatu zitzaien.

Lan guzti honen emaitza gisa lantaldea dokumentu baten bueltan lanean hasi zen. Dokumentu horretan garbi ikusten zuten zeintzuk ziren bailaran eta gure eskoletan berriro errepikatzerik nahi ez zituzten gaiak. Beraz iraganetik etorkizunerako bidaia honetan, iraganaz hausnartu eta etorkizunerako kultura eta baloreak berresten dituen dokumentua idatzi zuten. Puntu hauetan oinarrituak:

Eskola txikien kultura:

Azpirarratzekoak dira dokumentuan zehar adierazi zituzten zenbait ideia:

GURE HIZKUNTZA, euskaratik eta euskaraz.

Ur jauzi bat bezalakoak gara, urrutitik abiatu eta, indarrez eta kementsu ozeano urruneraino ere iristen dena.

KULTURA, herriaren argia.

gure herriaren osagaiak bor- borrean jarriko dituen eltzea bezalakoak izaten jarraitzeko konpromisoa hartzen dugu, gure kultura (bizimodua, nortasuna, jakintza) egunero elikatuko duena.

PUBLIKOA, zenbat buru, hainbat aburu

Herriko plaza bezalakoak gara; herri osoa bertan elkartzen duena. Ideia eta pentsamendu ezberdinetako pertsonak biltzen dituena.

ANIZTASUNA zubi ugari dituen herria da gurea

Zubia bezalakoak gara, norbanakoen arteko loturak eraikitzen dituena, elkarrekin komunikatzen laguntzen gaituena, identitate, erlijio, egoera sozial eta kultura desberdinak lotzen dituena. Gure herrietako hurrek plaza berean jolastu dezaten nahi dugu.

EKITATEA, ezberdinak bezain berdinak

Ikasle guztientzat –direnak direla, edo dutena dutela ekitatea nahi dugu. Sakanako egur loteak bezala; herritar guztiek eskubide bera izan dezatela kultura eta jakintza eskuratzeko.

ERRESPETUA, eman eta jaso, jaso eta eman

Eguzkiloreak bezalakoak izan nahi dugu, errespetu, zaintza eta babes gune ziurrak eskaintzen dituzten eskolak.

PEDAGOGIA, ikaslea abiapuntua

EUSKARA, euskaratik eta euskaraz

EUSKARA, geurea delakoz

HARREMANAK, konfidantza oinarri

SORMENA, ametsak eraikiz

eta Sakanaren etorkizunari buruz:

SAKANAKO ETORKIZUNA, sustraiak barrenago, zuhaitzak gorago

Gure eskoletako ikasleek etorkizuneko Sakana eraikiko dute. Gure eskoletan daude bailara honetako etorkizuneko herritarrak. Beraien bizitzaren gidari izanen diren pertsona askeak, autonomoak, solidarioak eta arduratsuak hezteko ardura eta konpromezua dugu.

Elkarlanean, etorkizuneko Sakana eraikiko duten herritar partehartzaile eta konprometituak. Beraien nahietatik eta askatasunetik Sakana hobetzen, eraikitzen eta zaintzen segi dezaten.

Lakuntzako aurkezpenean zehar Iker Uribe margolariak artelan bat sortu zuen saioak iraun zuen denboran. Iñigo eta Imanol Etxeberria anaiek konposatu eta sortutako abesti aurkeztu zuten, abestiaren letra idatzi duen Josema Leitzarekin batera. Hauxe da abestiaren letra:

Sakanako eskola txikiak

Bazen behin, gure herritako plazan
kantu bat jartzen gintuena dantzan.
Bazen behin, gure herritako plazan
kantu bat:
esan ta izan.

Bazen behin, neska-mutikoak jolasean
haizearen musikaren konpasean.
Bazen behin, herri baten babesean
hizkuntza
gure hizkuntza
gure etxean.

Eskola, ur goiena ur barrena
eskola, ur lasterra gardena
eskola, dakarrena datorrena
iturria
zahar berria.

Denondako bat denok batendako
su bazterretako, plaza ertzetako
hitzek sorgindutako ametsetako
ametsak
gure ametsak
gure poz-malko.

Eskola, ur goiena ur barrena
eskola, ur lasterra gardena
eskola, dakarrena datorrena
iturria
zahar berria.

Garoak dokumentuaren baloreak ezarri zituen Izarren hautsak kantua entzuten zen bitartean dantza integralaren bidez. Eskoletako ikasleek beraien bertsoak kantatu zituzten. Eskoletako guraso, ikasle, irakasle, ikasle ohiek eta abar luze bat igo zen oholtzara dokumentuaren bere zatitxoak irakurtzera. Herri horietako alkateak, Mankomunitatea eta eskoletako zuzendariak hauzatea irudikatu zuten zilarrezko ontzietatik ardoa edanez.

Festa guraso elkarteek antolatutako merienda goxo batekin amaitu zen. Saioa guztia bidaia baten modura aurkeztuz aritu zen Izaskun Igeltz irakaslea, gogo eta karisma biziz.

Zorionak zonaldeko ikastetxe hauei, gizarte hobeko batean sinisteagatik egunero. Beraien arbasoen lana eskertu eta beraien eskuetan dagoena egiteko konpromezua hartu bait zuten Lakuntzan ostegunean.

Bejondeiela!!